

BASERRITAR AURRERATUA

Errigoiti'n basetxe bat dogu Bizkaigane izenekoa, euskeraz esan gura dauana orixe Bizkaia ganean dagola.

Mendi baten ganean dago, eta andik agertzen jaku alderdi eder, ikuspegi zoragarria.

Bizkaigaine basetxe onetan eskonge anai bi bizi dira, Arrien'tar Salvatore ta Paul eta biok bear egiten dabe arazo, arlo baten.

Eta batek agindu eratu bear gauzak. Nok? Salbatore'k. Berau agintari danez, korta eder andi bat egin dau 45 aberentzat ustiatzeko, bere anaiaren laguntzaz, berak ardurea daroala. Oraintsu kortea *amaitu dau*. Bertatik burua ateraten ba-dogu, urrunean Oiz-pean "Bizkai'ko Balkoi", begira-toki edo Galarregi dakusgu.

Berez kostal-eralgia sei milloi laurleko izan da.

—Nok emon dautsu dirutza ori?

—Euskal Gobernuak emon daust euneko amarrean, ta gero baitura prestamen ordaiñez euneko bost eta seian, amar urterako. Mekanika makiñazko da jaiztegi azpilla, eta esnea doa artez beiazen errapetik otz-ontzira. Ontzi otza baserriak euki dauan garai-erospen eskuraturik andiena da. Len goizean goizetik jagi bear zan esnelariaren berebil andia etorren-eta. Orain esnelaria elduten da, erautsi, batuten dau odia ta utzituz ontzia, *badaroa esnea*.

Ikusi genduan Salvatore esnea erautsi edo batuten eta iñoskun: ontziaren kostal-eralgia Euskal Gobernuaren

diru-laguntza laurogei mille laurlekotan geratu da, au da, euneko ogei *bere baliotik*.

25 urtean iraun lei, ta 35-40-ra laurleko kostal-eralgia esne neurkin bakoitzean. *Esnea otzik eukitearren* pezeta bat *damost saritzat Ona-Ram esnetegiak*. Emen deukogu bigarren lur-aldea ta 29 laurleko txopin esne bakoitzaz emoten dabe, baiña esne otza ta koipedun dalata 35-40-ra laurleko eskuratzen dodaz. Olan zainduten gara. Mingarritz ale-garraburu salneurria garesti dago; igaz sei bidar egi eben, ta orain beste goraldiren bat iragarten dabiliz.

Abereak. Alan da guzti be, Salbatore'ren kortako lillura zoragarrik andiena beiak dira. Jatorri bako beiak ustialdi edo irabaziak egiteko eztabela balio uste dau Salbatorek. Orregaitik Ona-Ram esnetegira joaten da Holanda'ko bigantxak eskuratu dagiazan. Ona Ram'ek Holanda'ko. Coveko izenekoa dan alkarte andi bategaz artu-emonak al daukaz. An amaika Lurralde'ko 17 mille aberedun batzen ditu. Bigantxak 18-26-ra illebetekoak, umedun 5-8-ra illebetetik direanak ta 513 kilokoak batekoz beste astun. Euzkadi'ra ekarri baiño len txerto-bakunak egiten dautsiez bruzelosis, tuberkulosis, leukosis, ektorposis ta sukar aftosa eriak uxatuteko. Augaitik abere bat be ezta emen gaisorik egon.

Ikusten dogunez, Arrien'tar Salvatore'k abelzaintzarako jokera ta leia itzelezkoa dauko. Ez dago eskonduta bizimodu orretarako ez dau kalako astirik.

Bere korta ta abereakaz ta bere anaiaren gizalaguntasanaz pozik dabil gure mutilla.

LETONA'K